

AURKIBIDEA

I.Zer da Arrosa?

II.Sorrera

1. **Lehen urratsak**
2. **Arrosa: izena eta izanaren jatorri**

III.Proiektuaren finkatzea

1. **Abiapuntua**
2. **Irrati parte hartzaileak**
3. **Helburu orokorrak, funtzioak eta Zentroaren eginkizuna**
4. **Ekinbidea eta helburu zehatzak**
5. **Egituraketa**
6. **Izaera juridikoa**
7. **Diru iturriak**
8. **Baliabide materialak: ekoizpenerako estudioa eta zerbitzaria**
9. **Profesionalizazioa: soldatapeko langileak**
10. **Ekoizpenak**

IV.Proiektuaren berplanteamendua

1. **Aldaketarako arrazoiak**
2. **Azken hilabeteetako jarduna**

V.Gaur egun

I.ZER DA ARROSA?

ARROSA Irrati Ekoizpen Zentroa Euskal Herri osoko hogeitik gora irratiren elkarlan proiektua da. Gehienak irradi txiki xamarrak eta maila lokalean edo ertainean (herria, eskualdea edota herrialdea) aritzen direnak. Irrati guztiek bere eguneroko lan eta izaerari eusteko borondatea izanik, komunean dituzten zenbait helburu eta jarduera indarberritzeko asmoz elkartu dira proiektu honen inguruan.

II.SORRERA

1. Lehen urratsak

Herria Mugi! ekimenak, Joxe Zumalabe Fundazioaren laguntzarekin, 2001eko udaberrian Euskal Herriko Herri Mugimenduen III. Topaketak antolatu zituen Barrian (Araba). Ekimen horretako Komunikazio lan taldeak proposatuta, Euskal Herriko irradi mordoxka bat deitu ziren planteamendu garbi batekin: irration arteko elkarlana areagotu eta gure baliabideei probetxu hobea ateratzeko ezer egin ote zitekeen hausnartzea.

Ahal zen deialdi zabalena egin zen, irradi libreak, tokiko irradiak, udal irradiak... Asmoa ez zen inori atea ixtea, baizik eta guztion artean zeuden aukerak aztertzea.

Bertan bildutakoek hauxe garbi zuten:

- Irrati guztiak ezberdinak izan arren, hainbat behar eta nahietan bat egiten zenez, hortik ezer abiatu zitekeela.
- Bereziki irradi libreen artean lehenago ere izan zirela koordinazio eta elkarlan saiakerak eta asmo horrek bizirik zirauela.
- Baliabide teknologikoek lehen zailagoa zena errazten zutela eta aukera berriak zeudenez, horiek aztertzeke beharra zegoela.
- Komunikabideen eremuan egunetik egunera enpresa handiak nagusitzen ari zirela eta, gertuko komunikabideen esparrua ere bereganatu nahiko zutela jakinik, gertuko komunikazio horretan aritzen ziren euskarazko komunikabideek elkartu eta indartu beharra zutela, enpresa handiei aurre egingo bazieten.

Lehen bilkura izan arren, argi geratu zen elkarlanean proiektuaren bat abiatzeko gogoia eta nahia. Hau ikusita Joxemi Zumalabe Fundazioak berak ere bere koordinazio eta dinamizazio zerbitzua eskaini zuen, hasiera horretan laguntzeko.

2001eko ekaina hasieran Hernanin egin zen bileran zehaztu ziren irratiek zituzten beharrak, eta horri erantzuteko sortu nahi zen egiturak beharko lituzkeen ezaugarrietako batzuk:

- Irrati bakoitzaren izaera errespetatu behar zuen, bakoitzaren beharrei moldatzeko gaitasuna behar zuen izan.
- Egitura profesionala izan behar zuen, irratiei lan gehiago emango ez ziena, eta aldiz lagungarri izango zitzaiena.
- Saio eta irradi produkzioen elkartrukerako eta koordinaziorako zerbait sortzea ondo legoke, horretarako inbertsio ekonomiko eta teknologiko handia egin behar izan arren, emaitzak mereziko luke.
- Egitasmoak berak eta bertatik sortutakoak Euskal Herria izan beharko luke erreferentzia eremua eta euskara hizkuntza.

1. **Arrosa: izena eta izanaren jatorri**

Aurreko urteetan ere Euskal Herria Zuzenean jaialdiaren baitan Irulegi Irratiak deituta Frantzia eta Euskal Herriko irradi librean topaketak egin izan zirela profitatuz, 2001eko jaialdian Arrosan egin zen egitasmo honen inguruan zebiltzan irratien hurrengo batzarra.

Esku artean geneukan egitasmo honen izena ere bertan erabaki genuen, bide batez aurreko urteetako irratien arteko topaketa horiek gogoratuz: “ARROSA: Irrati Ekoizpen Zentroa”.

ARROSAren ekoizpenei dagokienez, proposamen zehatz bat jarri zen mahai gainean:

Irrati produkzio gune profesional bat martxan jartzea. Gune honek, lau mailatako parte hartzea izatea proposatu zen:

1. Irrati korteen elkar trukaketa informatiboak ekoizten dituzten irratien artean, edota horrela nahi duten irratien artean.
2. Material horrekin guztiarekin, eta beste zenbaitekin (mahainguruak, elkarrizketak, kolaborazioak...) *Arrosak* magazine bat ekoiztea egunero, nahi duten irratiek erabil dezaten.
3. Material hori internetez ere zabaltzea *Arrosak*.
4. Programa komunak. Euskal Herri mailako hainbat ekitaldiren inguruko saio komunak egin zitezkeela pentsatu zen.

Gainera Korrika zela eta frogia egin berria zen eta 31 irratik aldi bereko zuzeneko saioa jartzea lortu zenez, honek aurrerantzean ere halakoak egin zitezkeela adierazten zuen.

Gune honek eskaini zitzakeen aukerak, irratien egoera teknologikoa eta borondatea eta finantziabideak aztertzeko lan talde bat osatu zen, urte bukaerarako horren inguruko txosten bat egiteaz arduratuko zena.

III. PROIEKTUAREN FINKATZEA

2002ko maiatzaren 25ean Andoainen egin zen batzarrean aho batez erabaki eta adostu ziren ARROSA Irrati Ekoizpen Zentroaren barne araudia, jarduera oinarriak eta proiektu komunikatiboa. Behin horiek adostuta, zehaztu ziren egitura, arduradunak eta baita ere zein irratik parte hartuko zuten proiektuan.

1. Abiapuntua

Honoko irizpide eta printzipioetan bat egiten dute Zentroaren inguruan bildutako irratiek:

- Euskal Herriko lurralde eta herritar guztiak barne hartzen dituen emisio eremua osatzen duela beraien arteko uhinen loturak, eta Euskal Herriko Komunikazio Esparruaren beharra azpimarratuz, berau sortu eta bultzatzeko ahalegina egingo dutela.
- Irrati bakoitzak lehentasunezkoa duela berezko duen maila lokal edo ertaineko lanari eustea eta berori indartzea eta beste irratien laguntzarekin hedatzea. Beraz, gertuko komunikazioari lehentasuna ematen diotela, herritarrenganako duen hurbiltasun eta garrantzia azpimarratuz.
- Irratien arteko kohesioa zein konexioa areagotzeko beharra sentitzen dutela, komunikazio lan osoagoa jorratu eta eskaini ahal izateko.
- Euskal Herriko beste eskualde zein lurraldetan garatzen den komunikazioa eta informazioa eskura izan nahi dutela, maila lokaletik zonalde ezberdinen arteko elkar ezagutza eta elkar hurbilketa bultzatzeko.
- Halaber, nahiz eta irradi bakoitzean euskararen presentzia neurri ezberdinekoa izan, euskara hutsezko produkzioa garatuko dela Zentroan.

Zentzu horretan ARROSA Irrati Ekoizpen Zentroa osatzea erabaki zuten irratiek, aipatutako ideia eta proiektu orokor horiek bultzatzeko. Ideia horietan sakondu eta irratien helburuak garatzeko bidean, Zentroak eskainiko dituen zerbitzu eta ekoizpenen artean honokoak aurkitzen dira:

- Irratien arteko korteen eta irratsaioen trukaketa.
- Eduki sozial eta kulturalari lehentasuna emango dion eguneroko magazina.
- Euskal Herri mailako ekitaldi nagusien emisio komuna.
- Internet bidez ARROSAREN eta beronen bazkideen ekoizpenen hedapena.

- Horiez gain Zentroak dituen helburuei begirako bestelako produktuak ere landu, sortu eta garatuko ditu, horrela adosten bada.

1. Irrati parte hartzaileak

ARROSA Irrati Ekoizpen Zentroa sortzeko urtebete inguru iraun duen prozesuan parte hartu duten, eta 2002ko maiatzaren 25etik aurrera proiektuaren parte izateko erabakia hartu duten irratiak zerrendatzen dira segidan. Guztiak ere izaera eta jardun ezberdin eta aniztakoak dira eta horrek balio berezia ematen dio proiektuari, bere aniztasunean aberatsago egiten duelako. Segidan doa, beraz, euren adostasuna adierazi zuten irratien zerrenda, nola euren frekuentzia, emisioen eremua eta, azterketak eginak diren kasuetan, entzulegoa:

1.- ANTXETA	1.- 90,5 Mhz. (Gure)	Txingudi badia	*
2.- ARRAKALA	1.- 106,7 Mhz.	Lekeitio	*
3.- ARRETA	1.-107,8 Mhz.	Ermua	*
4.- BELEIXE	1.-107,0 Mhz.	Sakana bailara	*
5.- BILBO HIRIA	1.- 96,0 Mhz.	Bilbo aldea	*
6.- EGUZKI	1.- 104,5 Mhz.	Iruñerria	*
7.- ESAN ERRAN	1.- 107,9 Mhz.	Basaburua	*
8.- EUP!	1.- 107,2 Mhz.	Markina	*
9.- EUSKALERRIA	1.- 91,4 Mhz.	Iruñerria	*
10.- GARRAXI	1.- 101,9 Mhz.	Altsasu/Sakana	*
	1.- 106,6 Mhz. Lapurdi		
	2.- 90,5 Mhz. Sara		
11.- GURE IRRATIA	3.- 90,5 Mhz. Urruña	Lapurdi	24.000
	4.- 90,5 Mhz. Hendaia		
	5.- 105,7 Mhz. Oarso-Donostia		
	1.- 107,4 Mhz. Gasteiz		
	2.- 101,8 Mhz. Kanpetzu		
12.- HALA BEDI	3.- 101,9 Mhz. Sakana (Garraxi)	Araba osoa	20.000
	4.- 96,5 Mhz. Laudio/Amurrio		
	5.- 107,7 Mhz. Errioxa		

13.- HERRI IRRATIA	1.- 1224 Khz. (AM) 2.- 99,8 Mhz. Loiola 3.- 87,9 Mhz. Tolosa 4.- 98,0 Mhz. Gasteiz 5.- 105,2 Mhz. Beasain	Gipuzkoa eta Araba osoak	60.000
14.- IRRATIA.COM	SAREA	SAREA	*
15.- IRULEGI	1.- 91,8 Mhz. Baxenafarroa 2.- 94,2 Mhz. Donapaleu 3.- 97,4 Mhz. Aierra 4.- 100,7 Mhz. Aldude	Nafarroa Beherea	22.000
16.- KARRAPE	1.- 107,8 Mhz.	Leitza	*
17.- MATRAILAKO	1.- 102,8 Mhz.	Eibar	*
18.- MOLOTOFF	1.- 99,2 Mhz.	Hernanialdea	*
19.- OIARTZUN	1.- 107,0 Mhz.	Oiartzun	*
20.- RADIXU	1.- 105,5 Mhz.	Ondarru	*
21.- TAS-TAS	1.- 97,0 Mhz.	Bilbo aldea	*
22.- TXAPA	1.- 97,0 Mhz.	Bergara	*
23.- TXOLARRE	1.- 107,5 Mhz. Billabona-Zizurkil 2.- 100,9 Mhz. Tolosa	Andoain Billabona Tolosa	*
24.- UHINAK	1.- 97,5 Mhz	Aiara aldea	*
25.- XIBEROKO BOTZA	1.- 95,5 Mhz. Maule 2.- 88,8 Mhz. Ezkiula/Sohüta 3.- 88,8 Mhz. Muskildi 4.- 88,8 Mhz. Pagola 5.- 103,7 Mhz. Sta. Engratzi	Zuberoa	8.000
26.- XORROXIN	1.- 107,5 Mhz. Baztan 2.- 107,1 Mhz. Bortziriak 3.- 88,0 Mhz. Lesaka	Baztan Bidasoa Malerreka	30.000
27.- ZAZPIKI	1.- 107,6 Mhz.	Elgoibar	*
28.- ZINTZILIK	1.- 100,0 Mhz.	Errenteria -	*

Fitxa Teknikoa

Irrati kopurua: 28

Frekuentzia kopurua: 49

Eremua: zazpi herrialdeak

Internet bidez (Irratia.com) munduari begirako bozgorailua

Entzulego kontrastatua: 164.000 (EGM, CIES eta Mediametrie-ren arabera)

Entzulego potentzial estropolatua: 200.000 / 220.000

2. Helburu orokorrak, funtzioak eta Zentroaren eginkizun nagusia

ARROSA Irrati Ekoizpen Zentroa sortzeko bidean emandako eztabaidetan adostutako moduan, Zentroaren helburuak honakoak izango dira:

- Euskal Herriko komunikazio kohesioa bultzatzea.
- Euskararen erabilera sustatu eta euskalkien ezagutza zabaltzea.
- Euskal Herriko irratien arteko harremanak sakondu eta haien arteko elkarlana bultzatzea.
- Baliabideen (giza eta materialak) trukaketa sustatzea.

Ondorioz, segidako funtzioak hartzen ditu bere gain ARROSA Irrati Ekoizpen Zentroak:

- Euskal Herriko komunikazioaren inguruan gogoeta eragitea.
- Ikuspuntu sozialeko komunikazio plangintza orokorra bultzatzea.
- Irratien arteko harremana eman dadin bitartekoak eta tresnak sortzea.
- Komunikazioa hobetzeko zerbitzuak sortzea eta horien inguruko aholkularitza eskaintzea.

ARROSA Irrati Ekoizpen Zentroa Euskal Herriko irratien artean elkarlana eta elkarrezagutza bultzatzeko zegoen beharrari erantzuteko sortzen da. Zentroaren sorrerak esperientzia eta ideiak trukatzeko ahalbideratuko du. Era berean irratia indartzeko aukera emango du, baliabide ekonomiko berriak sortuz, daudenak hobeto erabiltzeko bideak jarri eta ekintza komunak bideratuz.

Zentzu horretan beraz, eta laburbilduz, ARROSAren eginkizun nagusia hondokoa da: Euskarazko Euskal Herriko Komunikazio Esparrua sendotzea, maila lokal eta ertaineko irratien arteko elkarlanerako tresnak eskainiz.

1. Ekinbidea, eta helburu zehatzak

EKINBIDEA

Aipatutako helburuak erdiesteari begira, ARROSA Irrati Ekoizpen Zentroa euskararen normalkuntzan eta Euskal Herriko Komunikazio Esparruaren alde lanean ari diren Euskal Herriko maila lokal eta ertaineko irratiak indartzeari eta euren arteko elkarlana bideratzeari begira lan egiten du, euren artean ezberdintasun eta diskriminaziorik egin gabe, eta bakoitzaren izaera berezia gorde eta errespetatuz. Zentzu horretan ARROSA ez da irratien arteko lehia komunikatiboan kokatzen, guztiz bestela, irratien arteko komuneko alderdiak sendotzean baizik.

Beraz, irradi guztion ekarpenarekin osatutako tresna komunikatiboa da ARROSA Irrati Ekoizpen Zentroa. Bere ekinbidean ez du zuzeneko emisiorik izango (kontraktorik erabakitzen ez den bitartean, emisio komunen mailan izan ezik), maila lokal eta ertaineko irradi horien ekimena baita lehentasunez indartu nahi duena. ARROSAren aburua da maila hori indartuz erdietsiko dituela bere helburuak. Ekinbide nagusi honetan aurreikusten diren zeregin nagusiak bi dira: a) irratien arteko elkarlan esparruak areagotzea (Euskal Herri mailako ekitaldien emisio komunak bultzatuz edo irratien arteko irratsaio eta informazio trukea bideratuz, esaterako); eta b) irratientzako baliabide berriak eskaintzea (irradi guztientzako eguneroko magazina ekoiztuz, finantza baliabide berriak sortuz, irratiotan baliabide teknologiko berriak hedatuz edo irratientzako eta kazetarientzako formazio eta aholkularitza zerbitzuak eskainiz, esaterako).

HELBURUEN ZEHAZTEA

- Helburu orokorra: Euskal Herriko komunikazio kohesioa bultzatzea.
 - a. Helburu zehatza: ARROSA: Irrati Ekoizpen Zentroaren proiektua abian jarri.
 - b. Helburu zehatza: Internet bidezko irratien arteko emisio gune komuna sortu.
 - c. Helburu zehatza: Euskal Herriko gizarte eragileak irratigintzan eta komunikazioan murgildu.
- Helburu orokorra: Euskararen erabilera sustatu eta euskalkien ezagutza zabaltzea.
 - a. Helburu zehatza: ARROSAk ekoiztutako eguneroko magazina sortu.
 - b. Helburu zehatza: irratientzako bestelako irradi ekoizpenak egin ARROSAtik (tertuliak, elkarrizketak, zutabeak...).
- Helburu orokorra: Euskal Herriko irratien arteko harremanak sakondu eta haien arteko elkarlana bultzatzea.

- a. Helburu zehatza: Euskal Herri mailako ekitaldien emisio komunak egin.
- b. Helburu zehatza: Irratien arteko irratsaioen eta korteen truke sistema sortu.
- c. Helburu zehatza: Irratien arteko elkarlan anitzak sortzen lagundu, ARROSAren jardun orokorretik landa.
- Helburu orokorra: Baliabideen trukaketa sustatzea.
- a. Helburu zehatza: Irratietan baliabide teknologiko berriak txertatu.
- b. Helburu zehatza: Irratigintza mailako formazioa eskaini.
- c. Helburu zehatza: Irratien artean informazio trukea indartu.

1. Egituraketa

2002ko maiatzaren 25eko batzarrean onartu bezala, ARROSA Irrati Ekoizpen Zentroaren organoak honakoak dira:

- Zentroaren Batzarra izango da organo gorena. Bazkide guztiek osatuko dute.
- Zentroaren Administrazio Kontseilua izango da urteko egitasmoa eta Batzarraren gainerako erabakiak aurrera eramateko ardura izango duen organoa. Kontseiluak bere esanetara Idazkaritza eta Lan taldeak izango ditu, sortzen diren lanak bideratzeko. Lehendakari ordeak, Idazkariak, Diruzainak, Lan taldeetako ordezkari batek eta bost Bokalek osatuko dute.
- Zentroaren Kontseiluaren Iraunkorra izango da Kontseiluaren eta Batzarraren gainerako erabakiak modu iraunkorragoan aurrera eramateko ardura izango duen organoa. Kontseiluak bere esanetara izango ditu Idazkaritza eta Lan taldeak, sortzen diren lanak bideratzeko. Iraunkorra osatuko dute, Administrazio Kontseilua osatzen duten kideen arteko haiek urtero erabakitako gutxieneko bost kideek.
- Lan taldeak izango dira aurrez zehaztutako organoen gainerako erabakiak aurrera eramateko ardura izango dutenak, funtzio eta lan banaketaren arabera egituraren oinarrituta.

2002ko ekainaren 6an Arrosan egindako hurrengo batzarrean onartu zen lehendabiziko Administrazio Kontseilua:

KONTSEILUKIDEA	IRRATIA	IZAERA	LURRALDEA
IRANTZU JAUREGI	MOLOTOFF	LIBREA	GIPUZKOA
JUAN CARLOS GARCIA	HALA BEDI	LIBREA	ARABA

TXEMA URIARTE	TAS-TAS	LIBREA	BIZKAIA
OIER GOROSABEL	MATRAILAKO	LIBREA	GIPUZKOA
MIGEL ANGEL LLAMAS	EGUZKI	LIBREA	NAFARROA
ANE LARDI	OIARTZUN	TOKIKOA	GIPUZKOA
MIKEL BUJANDA	EUSKALERRIA	TOKIKOA	NAFARROA
FERMIN GARTXITORENA	ESAN ERRAN	TOKIKOA	NAFARROA
AINARA ZUAZABEITIA	ANTXETA	TOKIKOA	TXINGUDI
JOJO BIDART	IRULEGI	IPARRALDEA	BEHE NAFARROA
TXEMA AUZMENDI	HERRI IRRATIA	KOMERTZIALA	GIPUZKOA
MIKEL PERUARENA	ARROSA	KOORDINATZAILEA	
IÑAKI ETXANDI	KOORDINATZAILE OHIA	BEHIN BEHINEKOA	BOTORIK GABE

2002ko uztailaren 17an Iruñean bildu zen lehen aldiz Administrazio Kontseilu osatu berria eta besteak beste bertan erabaki ziren karguak:

LEHENDAKARIA: Irantzu Jauregi

LEHENDAKARI ORDEA: Jojo Bidart

IDAZKARIA: Txema Uriarte

DIRUZAINA: Ane Lardi

1. Izaera juridikoa

Zentroaren jardura zehatzak ez dira emisio publiko bati lotuak, baizik eta bazkide diren irratientzako zerbitzu eta ekoizpen jakin batzuen prestaketari. Hortaz, ARROSA ez dago irratigintzaren inguruan indarrean diren legeen aginduetara, bai ordea ARROSAREN bazkide diren irradi ezberdinak.

Alde horretatik esan genezake ARROSAREN bazkide diren elkarteak indarrean diren legeen arabera antolatuta daudela. Hala ere elkarte horietako bakoitzak aurrera daraman jardura komunikatiboa egoera legal oso ezberdinetan mugitzen dela. Zenbait kasutan udal mailako baimenekin, beste zenbaitetan baimenik gabe baina administrazioaren oniritziarekin, beste hainbatetan egoera legalatik landa eta beste zenbaitetan lurralde administrazioen baimenekin ari dira lanean irratioak.

Irratien egoera legal anitz honek ez du zuzenean Ekoizpen Zentroan eragiten. Horretaz gaindi, ARROSAREN bere buruarentzat egokitzen jo duen osaketa legala aipatu behar da atal honetan, ARROSA IEEEE gisa antolatu baita (Interes Ekonomikodun

Europar Elkarte). Elkarreentzako izaera juridiko legal honek baditu zenbait abantaila, esaterako Euskal Herri osorako egitura bakar batekin gure beharrak beteta egotea, nortasun agiri bakarra izango baitu modu honetan, elkarte bakarrean bilduta.

2. Diru iturriak

- Diru laguntzak

Nahiz eta oso argi izan proiektuak bere burua finantziatzeko bideak aurkitu behar genituela aurrera egin ahala, hasiera batean hainbat elkarte eta erakunderen diru laguntzak izan genituen hau guztia martxan jartzeko. Diru laguntzak erakunde eta elkarte hauetatik jaso genituen: Udalbiltza, Piztu elkarte, Euskadi eta Akitania arteko Lankidetzak Fundoa eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila. Horretaz gain ezin ahaztu Joxemi Zumalabe Fundazioak ere hau guztia martxan jartzeko bere koordinazio eta dinamizazio zerbitzua eskaini zigula hasierako momentu haietan eta orduztik ere uneoro laguntzeko prest agertu dela. Herri Aldizkarien Topaguneak gestoria eta aholkularitza zerbitzua eskaini digu urtebetean.

- Bazkideen kuotak

ARROSAko bazkide garen irrati gehienok diru iturri mugatu xamarrek ditugula kontuan izanda, badakigu kuotak ere ezin duela oso altua izan. Beraz nahiz eta helburua irrati guztiek kuota ordaintzea izan, praktikan jakina da diru iturri mugatu xamarra izango dela hau.

- Ekoizpenak

Nahiz eta argi izan ekoizpen zentroan egin daitezkeen soinu deiak, audio produktuak eta audio zerbitzuak aurrera begira diru iturri izan daitezkeela, hasiera batean gutxi landutako bidea izan da. Soinu dei eta ekoizpen batzuk saldu izan ditugu, baina aurrera begira gehiago jorratzeko bidea litzateke.

- Publizitatea

Aurrekoa bezalaxe, aurrera begira lantzeko diru iturria izan daitezkeela uste dugu, baina orain artean etekin gutxi ateratu diogu.

1. Baliabide materialak: ekoizpenerako estudioa eta zerbitzaria

Behin egitura, proiektua eta izaera adostuta, ondorengo pausoa oraingo proiektu huts zena errealitate bihurtzea izan zen. Beraz hori guztia martxan nola jarri erabaki behar zen. Ordurako argi zegoen proiektuak bi zutabe izango zituela:

1. Ekoizpen Zentroa: Andoingo Martin Ugalde Kultur Parkean bi modulo alokatzea erabaki zen. 2002ko urrirako bertan ARROSAren bulegoa eta estudioak jarri ziren. Bertan egin ahal izan ziren *Ostarteko Balkoia* magazina eta beste hainbat ekoizpen (soinu-deiak, elkarriketak...). 2002ko abenduaren 14an izan zen inaugurazioa.

2. Zerbitzari nagusia: irratien arteko irratsaio eta korteen trukaketa bideratzeko sistema informatikoaren zerbitzari nagusia da bera. Beraz, horretarako egokitutako ordenagailua eta sistema informatikoak biltzen ditu. ARROSAren Bulego Teknikoa litzateke. ARROSAko gainontzeko ekoizpenez gain, irradi bakoitzean sortutako irratsaioak, elkarrizketak, soinu-deiak, korteak... irratien artean zabaldu eta guztion eskura jartzeko erabili nahi zen tresna zen hau. Hasieratik argi zegoen Gasteizen kokatuko zela. Miñanoko parke teknologikoan bulego bat alokatzeko saiakerak egin ziren arren, azkenean ez zen bertan kokatu.

Irrati bakoitzaren ekipamendua

ARROSAko irradi gehientsuenek ere inbertsio teknologikoak egin behar izan dituzte ARROSAren eguneroko jardunean sartu ahal izateko. Irratiak pixkanaka egiten ari dira aldaketa horiek, bakoitzean inbertsio maila ezberdina egin behar izan da gainera.

Adibidez, Internetarako konexioa egin ahal izateko (barne mailako irratsaio, korte eta abarren trukaketa egiteko), irradi bakoitzak honoko ekipamenduak ezarri behar izan ditu estudio bakoitzean: oinarrizko ADSL konexioa (jaisteko 256K/ igotzeko 128K), Sarearen sarbiderako ordenagailua (barneko FTP pribatuarekin) eta irradi bakoitzaren automatizaziorako sistema (ordenagailu arrunta izan daitekeena, honako funtzioekin: programa ezberdinen grabazioa, audioaren edizioa, musika zein soinu deien emisioa, aurre-grabazioak zein errepikapenak programatzeko...). Laburbilduz, bi soinu txarteleko ordenagailu bat eta soinu txartel bateko ordenagailua (automatikoki emititu ahal izateko) ezarri behar izan ditu irradi bakoitzak bere estudioetan.

Emisio komunak edo unean-uneke irratien arteko zenbait truke egin ahal izateko aldiz, uhinen bidezko loturak egin behar dira eta horretarako, sintonizadore/etxeko hartzaile digital bat behar da irradi bakoitzean, nahasketa mahaiari lotua eta seinalea jasotzeko antena egoki batekin.

1. Profesionalizazioa: soldatapeko langileak

Aurrerago esan bezala, hasiera hasieratik garbi zegoen proiektuak aurrera egingo bazuen izaera profesionala behar zuela izan, alegia, soldatapeko langileak beharko zirela hori guztia aurrera ateratzeko.

2002 hasieratik pertsona bat hartu zen koordinazio lanak egin eta irradi bakoitzaren egoera teknologikoa aztertzeko, baina 2002ko udan soldatapeko hiru langile hartzea erabaki zen. Nahiz eta printzipioz urtebeterako kontratua egin, Administrazio Kontseiluaren esku egongo zen soldatapeko langileen lanaren jarraipena egitea eta Batzarrari horri buruz unean-uneke proposamenak edo aldaketak aurkeztea.

Hauek dira soldatapeko langileei ezarri zitzaizkien egitekoak:

- Bulego Teknikoaren arduraduna: proiektuak funtziona dezan beharrezko den instalazio teknikoa ezarri eta beronen funtzionamendua bermatzeaz arduratuko da. Zehaztuz, batetik, bazkide diren irratien diagnosi teknologikoa burutu beharko du eta irradi bakoitzean beharrezko diren ekipamenduak ezartzen lagundu irratiei. Bestetik, bere ardura eta zeregina

izango da Gasteizko Zerbitzari Nagusia ezartzea eta ondoren bere esku geratuko da sistema osoaren operatibitatea frogatzea eta sistema osoaren funtzionamendu egokirako beharrezko diren aldaketa teknologikoak egitea. Bere lantokia Gasteizen izango du. 2002ko ekainean hasi zen lanean.

- Koordinatzailea: bere egitekoa da Zentroaren proiektu eta ildo guztiak ezarritako epean eta moduan (plangintzaren arabera) beteko direla bermatzea. Aldi berean, plangintza ekonomikoaren jarraipen estua egin beharko du (atal honen barruan, bereziki, eskatutako dirulaguntzen jarraipena eta autofinantzaketarako iturrien garapena ziurtatu beharko ditu). Koordinatzaileak ARROSAri egingo zaizkion eskari anitzak dagozkion pertsona eta organoetara bideratu beharko ditu eta, zentzu horretan, bereziki Iraunkorraren bileren prestakuntzaz arduratu beharko du. Modu berean, Administrazio Kontseiluan esku hartuko du, koordinatzaile gisa eta Zentroaren langileen ordezkari gisa.

Aldi berean, koordinatzaileak ardura berezia izango du ARROSAren ekoizpenen editore gisa (eta, beharrezko balitz, baita esatari gisa ere). Honetaz gain, beharrezko den guztietan ARROSAren jendaurreko ordezkari lanak ere egin beharko ditu, nahiz eta lan horretan arituko diren Lehendakaria eta Administrazio Kontseiluko zenbait kide ere. Emisio komunak kasu koordinazio lanak ere bere bizkar egonen dira. Bere lantokia Andoaino egoitzan izango du. 2002ko uztailean hasi zen lanean.

- Kazetaria: Zentroak erabakitako produktuak ekoiztea eta beronen kalitatea eta eskuragarritasuna bermatzea izango da bere egitekoa. Kazetariaren funtzioak, beraz, erabat produktuei lotuak dira. Ekoizpen bakoitzaren edukiak eta trataera prestatzea eta lantzea, ekoizpen bakoitza irratien eskura garaiz egongo dela ziurtatzea, ekoizpenen hobekuntzarako diren erabakiak hartzea edota Administrazio Kontseiluak zein Batzar Orokorrak hartu ditzaketen ekoizpenen gaineko erabakiak gauzatzea izango dira bere funtzio nagusiak. Aldi berean ekoizpen horiek gauzatzeko egin beharko diren harremanen ardura hartuko du bere gain. Alde horretatik, Zentroaren ekoizpen anitzak sortzen lagunduko duen laguntzaile sarea sortzeko eta mantentzeko lanak egin beharko ditu. Zentroaren audio eta ekoizpenen artxiboa zaindu eta gordetzeaz ere arduratu beharko du kazetariak, eta ekoizpenen bideragarritasuna bermatzeko beharrezko den materialaren gaineko kontrola ere eraman beharko du. Modu berean, Zentroak erabakitzen duen ildo editorialaren berma izan beharko du ekoizten den produktu bakoitzean. Ekoizpen lanetan koordinatzailearen laguntza izango du kazetariak. Bere lantokia Andoaino egoitzan izango du. 2002ko irailean hasi zen lanean.

Hiru langile hauen lanari esker, 2003ko otsaila bitartean lan asko aurreratu zen ARROSAren:

- ARROSAko irratien egoera teknologikoaren azterketa egin zen eta aldaketa teknologikoak egin zituzten hainbat irratiri horretan lagundu.
- Andoaino Martin Ugaldeko estudioa martxan jarri zen.

- Bertatik asteko bost egunetan *Ostarteko Balkoia* ordubeteko magazina ekoiztu zen 2002ko urriaren 21etik hasita.
- ARROSA beraren egituratze lanak aurreratu ziren, diru laguntza eskaerak bideratu ziren eta ARROSAren izaera juridikoa definitu zen.

1. **Ekoizpenak**

Idea sortu eta lehen urratsak eman genituenetik hasi ziren ARROSAko irratiak hainbat emankizunekin. Horixe baitzen guztion nahia, elkarlan horren emaitzak lehen bait lehen jasotzen hastea. Hauek izan ziren ARROSAk hilabete haietan ekoizpen mailan emandako emaitzetako batzuk:

1. Guztion arteko emankizunak

ARROSA sortzeko ideia sortu zen lehen bilera hartan bertan jabetu ginen, halako emankizunak egiteko aukeraz. Garai hartan ARROSAren bueltan 30en bat irradi genbiltzan. Loturak modu batera edo bestera eginez, Euskal Herri osoko irradi mordoxka batean saio bera entzutea uste baino errazagoa zela jabetu ginen. Lehenik eta behin aurrez grabatutako saioak egin genituen, baina pixkatera zuzeneko saioak egiten ausartu ginen, egon zitezkeen arazo teknikoei aurre eginez. Hauek izan ziren ekitaldi hauen inguruan egin ziren emankizunetako batzuk:

- 2001eko udaberria: *Korrika 12* ren jarraipena egin zuten 31 irratik. Irulegi Irratiak, Gure Irratiak eta Xiberoko Botzak elkarrekin egindako saioa izan zen. Saiakera hau oso ondo baloratu zen. Arrazoiak: A) teknikoki, Euskal Herri osoko lurraldean (Erribera eta Arabako lautada izan ezik) sare txukun bat antolatzea posible zela erakutsi zuen. B) Hitz Egin Sarearen markoa gainditu zuen, tipologia ezberdineko irratiak bilduz. C) Irratiek maila nazionalean lan dinamika komunak garatzeko zuten borondatea azalera zuen.
- 2001eko maiatza: *Herri Urrats* zela eta egindako zuzeneko saioa.
- 2001eko iraila: *Lodosan Nafarroa Oinez* egin zenean, Euskal Herria Irratiak eginiko emankizuna zuzenean hartu zuten irradi mordoxka batek.
- 2002ko otsailaren 8a: Iruñeako Anaitasuna kiroldegian Eguzki Irratiak antolatutako jaialdia gaueko 21:00etatik 22:00etara zuzenean entzun ahal izan zen hainbat irratitan.
- 2002ko abenduaren 6a: Durangoko azokatik bertatik *Ostarteko Balkoia* magazin berezia eskaini zen abenduaren 6an arratsaldeko 15:00etatik 17:00etara zuzenean. 13 irradi batu ginen: Antxeta, Arrasate irratia, Belexe, Esan erran, Gure Irratia, Hala Bedi, Herri irratia, Irulegi, Oiartzun, Txapa, Txolarre, Xiberoko Botza eta Xorroxin.

- 2003ko otsailaren 27a: *Euskaldunon Egunkaria* ren itxiera zela eta ARROSA Irrati Ekoizpen Zentroko estudioetan egindako irratsaio berezia jarri zuten 22 irratik.
- 2003ko udaberria: 13. *Korrika* zela eta akordio bat sinatu genuen AEKrekin: kanpainako soinu deiak geuk grabatzea eta hasiera eta bukaerako ekitaldiak zuzenean ematea emankizun komunen bidez. Hala egin genuen.

Saio hauek arrakastatsuak izan dira oro har. Baten batean arazo teknikoren bat izan arren, oro har ondo baloratu izan dira.

2. Ostarteko Balkoia magazina

2002ko urriaren 21etik 2003ko otsaila bitartean astelehenetik ostiralera egunero ekoiztu zen magazin hau Andoaino estudioetan. Mikel Peruarena eta Aitziber Perez de Karkamo, ARROSAko koordinatzailea eta kazetaria hurrenez hurren, izan ziren Euskal Herriko gizarte eta kultur gaiak biltzen zituen magazin honen egile eta esatariak.

Artea, literatura, mendia, musika, antzerkia, filosofia, zinemagintza, ekologia eta beste zenbait gairen inguruan informazio gaurkotua eskaintzeko kolaboratzaile mordoak hartzen zuen parte. Euskal Herri osoko gaiak lantzea zen helburua, tokiak tokiko euskalki eta hizkerak mantendu eta lurraldeen arteko oreka helburu izanda.

Saioa goizez egiten bazen ere, arratsalderako prestatuta zegoenez, arratsaldeko 15:00etan edo 16:00etan jartzen zuten zortzi irratik egunero: Xiberoko Botza, Gure Irratia, Antxeta Irratia, Hala Bedi, Irulegi Irratia, Txolarre Irratia, Bilbo Hiria eta Zintzilik Irratia. Horretaz gain interneteko web orrietan entzungai zegoen on-line: gure-irratia.com arratsaldeko 16:00tan edo halabedi.org helbidean arratsaldeko 15:00etan. Zerbitzari informatikoa prestatu ahala, saioa ARROSAko gainontzeko irratiek ere jartzea zen helburua.

3. Irratsaioen bankua

Irratiek beraiek sortutako irratsaio, elkarrizketa eta dena delakoen elkartrukeari ere garrantzi handia eman diogu ARROSA-n, jakinik irradi batean egindakoak beste batean entzungai izateak sekulako aukerak ematen dituela. Hau martxan jartzeko ordea Gasteizko Zerbitzariak martxan egon behar du. Hori bakarrik ez, irratiek ere teknologikoki prestatuta egon behar dute elkartruke hau erraz eta egoki egiteko. Denbora horretan ez zen hori guztia martxan jartzerik lortu.

4. Gizarte eragileen irratsaioak

Nahi duten elkarte edo gizarte eragileek irratsaio bat egin eta ARROSAko irratien eskura jartzeko modua bilatzea izan da hasiera xamarratik izan dugun beste helburuetako bat. Hainbat eragilerekin gaiaz hitz egin zen, baina azkenean ez zen halako saiorik egin denbora horretan. Hauek izan ziren eragile horietako batzuk, halako zerbait egitean interesa erakutsi zutenak: Bertsolari Elkarte, Euskal Herriko Klimatologi eta Metereologi Elkarte (EHKME), Joxemi Zumalabe Fundazioa, Ikasle Abertzaleak, Elhuyar, Takolo Pirritx eta Porrotx eta Kontseilua.

IV. PROIEKTUAREN BERPLANTEAMENDUA

Bi hitzetan esanda, gutxi gora behera hauxe izan zen ARROSA Irrati Ekoizpen Zentroak 2001eko udaberritik 2003ko otsaila artean eginiko bidea.

2003ko otsaila bukaera aldera, egindako bidea baloratu eta aurrera begirakoak zehazten ari ginela, proiektuak aurrera egingo bazuen aldaketa handiak egin beharko genituela konturatu ginen. Zer dela eta? Honoko honetaz ohartu ginelako:

1. Aldaketarako arrazoiak

EKONOMIA

- Diru sarrerak diru irteerak baino nabarmen txikiagoak ziren.
- Ordura artean sortutakoa eta martxan jarritakoa diru laguntzetatik jasotakoarekin egin zen, baina diru iturri finkoagoak lortu ezean, denbora gutxira dirurik gabe geldituko ginen. Jadanik hasiak ginen zor batzuk biltzen.
- Gastu finko asko genituen hain diru iturri finko gutxi izateko.

ZERBITZARIA

- Zerbitzari Nagusia ez genuen oraindik martxan jartzerik lortu. Bi edo hiru hilabete lehenagorako prest egon behar zuena gehiegi atzeratzen ari zitzaigun. Besteak beste Miñaoko parke teknologikoan jartzeko gestioak uste baino zail eta luzeagoak izaten ari zirelako.
- Zerbitzaria egon ezean egindako ekoizpenak irrati guztietara zabaltzeko modurik ez genuen. Besteak beste *Ostarteko Balkoia* irratsaioa soilik zortzi irratitan entzun zitekeen, ahalegin ekonomiko eta humano handiegia soilik irrati horiek hartzeko.
- Autofinantziaketarako pentsatutako hainbat bide ere zailtzen zuten: hainbat ekoizpenen zabaltzea, publizitatea...

Egoera honetara iristeko faktoreen artean hauek behintzat bazeudela uste dugu:

- Lehenago bideragarritasun plan bat egin ez izana. Esklusiboki diru kontuetaz eta diru iturriak bilatzeaz arduratuko zen inor ez genuen izan azken hilabeteetan.
- Guztia teknologia mailan prestatu aurretik ekoizpenekin hasi izana. Zerbitzaria erabat martxan izan gabe eta irrati gehienak teknologikoki prestatu aurretik hasi ginen ekoizpen lanekin. Lehen bait lehen ekoizpenekin hasteko gogoz geunden eta halaxe egin genuen. Adibide argiena *Ostarteko Balkoia* saioaren ingurukoa da. ARROSAko irrati gehientzat oso irratsaio egoki

eta interesgarria izan arren, soilik zortzi irratitan entzun ahal izan zen, sare teknologikoa behar bezala prestatuta egon izan balitz 20ren batean entzungo zen.

- Langileen bizkar lan gehiegi utzi izana. Hori guztia martxan jartzeaz gain irratien koordinazioaz arduratzea lan handia da. ARROSAren inguruan borondatezko lana egin izan duten lagunek, lan politta egin arren, mugatua ere izan da. Oso zaila zen bestela gertatzea, bai Administrazio Kontseiluan bai Iraunkorrean bere eguneroko lanean eta bere irрати propioan lan eskerga egiten duen jendez osatutako organoak baititugu.
- Eskarmentu falta. Ideia on eta ilusio handiarekin aritu baginen ere, egoera eta zailtasun berriak aurkitu genituen eta ez genuen gertatutakoa aurreikusten jakin.

1. Azken hilabeteetako jarduna

Egoera hau izanda, 2003ko martxoaren 22an ez ohiko Batzar Orokorra deitu genuen Andoaingo egoitzan. ARROSA Irrati Ekoizpen Zentroaren proiektuak jarraituko bazuen hainbat neurri zail eta gogor hartzea erabaki genuen bertan. Hurrengo hilabeteetako jardunaren oinarriak ere bertan zehaztu ziren: gastuak gutxitu eta diru iturri finkoak bilatu, zerbitzaria eta irratsaioen bankua martxan jarri eta irratien inplikazioa areagotuz antolatzeke modu berri bat asmatu.

1. GASTUAK GUTXITU ETA DIRU ITURRI FINKOAK BILATU

Lokal aldaketa

ARROSAren bulegoa eta estudioak Andoaingo lokalean genituen eta Zerbitzaria berriz Miñaoko parke teknologikoan jartzeko asmotan genbiltzan. Bi kasuetan alokairua ordaindu behar genuen eta oraingoz gastu handiegia zenez, bi lokalak uztea erabaki genuen. Horien ordeaz ordaindu behar ez genituen bi kokaleku aurkitu ditugu: bulegoa Hernanin jarri dugu eta Zerbitzaria Gasteizen.

Langileen kontratua etetea

Nahiz eta guztiok argi izan ARROSAk aurrerantzean profesionala behar duela izan, egoera hobetu artean langilerik gabe aritzea erabaki zen. Hala 2003ko martxotik orain arte ez da soldatapeko langilerik izan ARROSAren. Guztiak ere erabaki zailak izan baziren, hauxe izan zen gogorrenetakoa. Honekin batera Ostarteko Balkoia irratsaioa ere eten egin zen.

Irratien bazkidetza kuotak

Garai berezi honetako gastu minimoei erantzun ahal izateko bazkidetza kuota jakin bat adostu genuen denon artean, jakinik proiektua berriz indarra hartu ahala beste diru iturri batzuk ere bilatu beharko direla.

2. ZERBITZARIA ETA IRRATSAIOEN BANKUA MARTXAN JARRI

Zerbitzaria martxan da. Hamar irrati zerbitzaria erabiltzeko prestatuak dira eta erabiltzen hasiak dira. Irrati bakoitzaren ohiko jardunean sortutako hainbat irratsaio, soinu-dei, korte eta elkarrizketa elkartrukatu dituzte hilabete hauetan. Horretaz gain, hilabete hauetan egin ditugun irratsaio berezi komunak irrati horietan entzuteko ere erabili dugu. Beste hamar irrati daude zerbitzarira lotzeko ezer gutxi falta zaienak. Horiek urrirako prest egongo dira. Beraz datorren ikasturtean zerbitzariari erabilera handiago emateko moduan izango gara.

3. ANTOLAMENDU BERRIA

Kontuan izanik hilabete hauetan soldatapeko langilerik gabe aritu beharko genuela, 2003ko uztailearen 5ean egindako batzarrean aurreikusten genituen lanak aurrera eramateko bost lan talde martxan jartzea erabaki zen.

- Koordinazio lan-taldea: irratiak herrialdeka banatu eta bakoitzean koordinatzaile bat edo bi jarri ditugu. Pertsona hauek koordinatzen dute eskualdeko jarduera: eguneroko arazoak, kuoten ordainketak, ebaluazioak, etab. Arrosan egin behar diren lanak banatzeko egitura izango litzateke.

- Komunikazio lan-taldea: barruko eta kanpoko komunikazioaz arduratzen da: ARROSaren proiektzio publikoa, irratiena, harremanak eragileekin, gainontzeko komunikabideekin, erakundeekin...

- Lan talde teknikoa: zerbitzariaren muntai eta asistentzia teknikoaz arduratukoak. Lurralde ezberdinetakoek osatzen dute, behar duten irratietan laguntza eman ahal izateko.

- Edukien lan-taldea: bankuaren edukiak, emisio komunak, gizarte eragileen saioak, soinu deiak... beraien ardurapean daude. Arrosaren produkzioaz arduratutako lan-taldea da.

- Ekonomia eta gestio lan-taldea: dirulaguntzen jarraipena, ordainketak, diru sarrera eta irteeren jarraipena...

Hau guztia koordinatzeaz arduratzen da Koordinatzailea. Horretaz gain, lan talde bakoitzeko arduradunek eta koordinatzaileek osatzen dute Administrazio Kontseilua. Urte eta erdi honetan hala funtzionatu dugu. Neurri batean koordinazio lana errazten duen egitura da, oso Administrazio Kontseilu operatiboa da, izan ere osatzen dutenek ARROSAn gertatzen denaren berri zuzena dute, bakoitzak dagokion esparruaren informazio zehatza baitu.

Beraz urtebete honetan horretan aritu gara eta pozik gaude emaitzarekin. Lortu dugu egoera ekonomikoari buelta ematea, egitura eta funtzionamendua finkatu dugu eta zerbitzaria martxan jarri eta erabiltzen hasi gara.

Bitarte horretan irrati batzuk, Herri Irratia kasu, proiektutik urrutiratu egin dira, baina beste batzuk aldiz, Karrape Irratia adibidez, gerturatu egin dira.

Horretaz gain jarraitu dugu gure ohiko emankizun bateratuekin. Hauek izan dira egin ditugun emankizun bateratuetako batzuk:

- 2003ko ekaina: *Berria* egunkariaren aurkezpena: Anoeta bertatik 20 irratirentzako zuzeneko saioa egin genuen. Irrati horien bidez Anoetako ekitaldia zuzenean entzun zuten ehundaka herritarrek.
- 2004ko otsailaren 20a: *Euskaldunon Egunkaria* itxi zuteneko urteurrena. 12 irratik urteurren hori gogoratuz prestatutako saioa eman zuten.
- 2004ko martxoaren 22a: Arrazakeriaren Aurkako Eguna gogoratuz, saioa berezia eman zuten Arrosako 22 irratik.
- 2004ko apirilaren 23a: Nafarroa Eguna dela eta Irulegi irratia eginiko saio berezia eman zuten 14 irratik.
- 2004ko uztailaren 2a: Euskal Herria Zuzenean jaialdia dela eta Xiberoko Bozatik zuzenean eginiko ordubeteko saioa entzun zen 15 irratitan.

V. GAUR EGUN

2003ko martxo hartako egoeratik ateratzea ez zen erraza izan. Neurri zailak hartu behar izan baziren ere, zorionez aurrera egiteko bidea bilatu genuen. Poltsikoan diru pixka bat hartuta eta orain arte izandako eskarmentuarekin haserako amets haiek errealitate bihurtu arte jarraitzeko indarrez gaude.

Momentu honetan hauxe da egiten ari garena eta egin nahi duguna:

- Zerbitzaria astindu: irratiek sortzen ditugun irratsaio, elkarrizketa, soinu dei eta gainontzekoak elkartrukatu.
- Elkarrekin sortutako honi eutsi, orain arte izan dugun giro eta umore on honekin.

Hernanin, 2006ko apirilaren 10an

ARROSA: irratien elkarlanerako sortua. 2006ko apirila